

EGOITZA ELEKTRONIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

HITZAURREA

Administrazioko prozedura eta araubide juridikoari buruzko lege berriek, administrazio elektronikoaren arloko irizpideak arautu eta administrazioaren funtzionamendua betekizun horietara egokitzeko beharrezana ezartzen dute.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari dagokion, urriak 1eko 39/2015 Legea, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari dagokion urriaren 1eko 40/2015eko Legea, administrazioarekin herritarrek eduki beharreko hartu emana erraztera datoz eta betebeharrak ezartzen dizkio administrazioari, eraginkortasunean, segurtasun juridikoan eta gardentasunean aurrera egiteko.

Lege aldaketen arabera, administrazioarekin tramitzeko (edozein izanda ere) puntu bakar batera bideratzeko eskumena ematen zaio interesdunari; ez du aurkeztutako dokumentu bat berriro aurkeztu behar, edozein administraziotan aurkeztuta badu, edo administrazio batek sortu badu, are gehiago, ezin zaio prozedurari aplikatzekoak diren arauetan eskatzen ez den datu eta dokumenturik eskatu; azken finean, herritarra ez da administrazio arteko zubia, ez du batetik bestera ibili behar eta administrazio arteko elkar lana zein elkarreragingarritasuna dauka helburu arautegi berri honek.

Administrazioaren funtzionamendua eraldatzera datozen hainbat eremu xedatzen ditu:

- 1.- Tramitazio elektronikoak lehentasuna dauka paperezkoarekiko. Espedienteak formatu elektronikoa izan behar du eta beharrezko egintza guztiak bitarteko elektronikoz egin behar du izapidetzen ari den organoak.
- 2.- Jakinarazpenak elektronikoki egin behar dira. Paperean egiten diren jakinarazpen guztiak interesdunaren eskura jarri behar dira jarduten ari den administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoan.
- 3.- Legeak, Izenpea eta identifikazioa bereizten ditu. Izenpea beharrezkoa ez den kasuetan, sarbide elektronikoa errazteko.
- 4.- Legeak erraztasunak eskaintzen ditu, beste baten izenean jarduteko. Apud acta ahalordetzearen aukera eskaintzen du, ahalordetzeen erregistro elektronikoa arautzen du eta izapide huts diren egintza eta kudeaketak, inolako egiaztapenik gabe egiteko aukera eskaintzen du.
- 5.- Administrazio guzti-guztien erregistro elektronikoek osotara elkarreragingarriak izan behar dute, hartara berma dadin haien bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa.
- 6.- Amaitutako prozedurei dagokien artxibo elektroniko bakar bat izan beharko du administrazio bakoitzak, aplikatzekoa den araudian ezarritako moduan.



7.- Interesdunak: Noiznahi jakin dezake bere prozeduren izapidetzea nola doan elektronikoki; prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratu eta haien kopia lortu dezake, eta tramitazioa hasten duen momentuan, administrazio-isiltasunak zer esanahi duen, zer organo den eskudun instrukzioa egiteko, zein ebazpena emateko, eta zer izapide-egintza eman dituen, jakiteko eskumena dauka.

Zazpi puntu hauetan jasotako aldaketak bideratu ahal izateko, udalak, bere ohiturak moldatu, informazio eta komunikazio teknologia berriak barneratu, udal dinamika guztia berraztertu eta Toki administrazio honen eta herritar zein enpresen arteko harremanak bitarteko elektroniko bidez bideratu ahal izateko, ordenantza hau onartu behar du. Batetik, Udalarekin harremanetan jartzeko erabiliko den egoitza elektronikoa eta identifikazio, autentikazio sistemak xedaturik uzteko, eta bestalde, administrazio publiko orok erregistro elektroniko orokor bat izateko duen betebeharra betetzeko. Erregistro horrek, aldi berean, egungo erregistro bulegoaren (**Berhaz bulegoaren**) aholkularitza izango du, erregistro arloko aholkularitza bulegoa izanik, interesdunek euren eskaerak paperean aurkeztu eta ondoren formatu elektronikoa emateko.

Toki Araubideko Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenei jarraiki,

1. Artikulua: Egoitza elektronikoa

1. Telekomunikazio sareen bidez herritar guztiek eskura duten helbide elektronikoa da egoitza elektronikoa, eta Bermeoko Udala da haren titularra.
2. <https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/sede/> helbidea da Bermeoko Udal Administrazioaren egoitza elektronikoa, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean emango da horren berri.
3. Egoitza elektroniko bakarra izango dute bai Bermeoko Udalak eta haren ardurapean diren erakunde autonomoak, bai udal sozietateak.
4. Egoitza elektronikoaren bitartez egingo dira toki erakundearen, beste herri administrazio baten edo herritarraren autentikazio elektronikoa behar duten jarduketa, prozedura eta zerbitzu guztiak.
- 5.- Identifikatzeko eta komunikazio segurua bermatu ahal izateko webgunearen edo haren gune baliokidearen autentikazio ziurtagiri onartuak edo balioztatuak erabiliko ditu egoitza elektronikoak.



6.- Eguneke 24 ordutan eta urteko egun guztietan emango du zerbitzua egoitza elektronikoak. Arrazoi teknikoak direla medio, egoitza elektronikoak berak edo haren zerbitzuetako batzuk jarduterik ez badute, ahalik eta lasterren jakinaraziko diete erabiltzaileei, etenaldiaren epea, etenaldiaren eragina eta gainerako aukera posibleak.

7. Egun eta ordu ofizialak Bermeoko Udalak bere egoitza elektronikoan adierazitakoak izango dira.

8. Egoitza elektronikoaren bidez Administrazioarekin harremanetan jartzeko aukera izango du interesdunak eta Udalak dituen izapideak zein tramitazio aukerak Egoitzan bertan dagoen "tramiteen katalogoa" deritzan atalean eskuragai izango ditu.

9. Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoak beti emango ditu bere eduki eta zerbitzuak hizkuntza ofizial bietan baliatzeko aukera. Salbuetsita daude, ordea, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak lotura edo estekei dagozkien edukiak, haiek ez badute hizkuntza bietan eskaintzeko derrigortasunik.

10. Udalak BERHAZ-Herriarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez emango dio aholkularitza-zerbitzua herritarrei (aurrez aurre, "010" telefono zenbakiaren bidez, emailaz: berhaz@bermeo.eus eta webgunearen bitartez: bermeo.eus), *erregistro arloko aholkularitza bulego izaera* berak duenez, egoitza elektronikoa behar bezala erabiltzeko zein interesdunak elektronikoki izapidetzeko eduki ditzakeen bestelako eremuetan laguntza eskaintzeko gunea BERHAZ izango da.

2. Artikulua: Erregistro elektroniko orokorra sortzea

1.- Ordenantza honen bidez sortu eta arautzen da Bermeoko Udalaren Erregistro Elektroniko Orokorraren funtzionamendua. Egoitza elektronikora sartuta (<https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/sede/>) izango du sarbidea interesdunak erregistro elektroniko orokorrera, beti ere, alde aurretik Udalak onartutako identifikazio moduetariko bat erabilita.

2.- ATB Saila edo haren ordezkizunean ordezkari dezakeen unitatea edo saila da Bermeoko Udaleko Erregistro Elektroniko Orokorreko kudeaketaz arduratuko den saila.

3.- Bermeoko Udalaren ardurapeko erakunde autonomo eta udal sozietateetako erregistro elektronikoak elkarreragingarriak izango dira, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala beteta.

3. Artikulua: Erregistro elektroniko orokorraren funtzionamendua



1.-Urteko egun guztietan, hogeita lau orduz aurkeztu ahal izango dira dokumentuak zein eskariak Bermeoko Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean.

2- Udalean zein bere erakunde autonomoetan egiten diren erregistro elektronikoak, idazpen bakoitzean gutxienez honako hauek bermatuko ditu: zenbakia, izaera adierazten duen izenburua, aurkezpen-data eta -ordua, interesdunaren identifikazioa, administrazio-organo igorlea, hala badagokio, eta nori edo zer administrazio-organori igortzen zaion eta, behar izanez gero, erregistratzen den dokumentuaren edukia aipamena. Horretarako, jaso-agiri gisa emango da, automatikoki, dokumentuaren kopia autentikatu bat, aurkezpen-data eta -orduarekin eta erregistroaren sarreraz-zenbakiarekin, eta orobat harekin batera doazen –hala bada– bestelako dokumentuen jaso-agiri bat ere, haien osotasuna eta gaitzespenik eza bermatuko duena.

3. Interesdunek toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak:

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan.
- b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- c) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- d) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

4.- Erregistro elektroniko bidez aurkeztutako eskaera, idazki edo jakinarazpenek indarrean dagoen legeriak onartzen dituen beste baliabideen bidez aurkeztutako dokumentuek dituzten ondorio berberak izango dituzte.

5.- Udalean, aurrez aurre paperean aurkeztutako dokumentuak digitalizatu eta formatu elektroniko baliadunetan bilakatuko dira Urriaren 1eko 39/2015eko 16.5 eta 27 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik aholkularitza eta laguntzarako izango den BERHAZ bulegoaren bitartez.

6.- Ordenantza honen bidez, Bermeoko Udalak bere Egoitza elektronikoan momentu bakoitzean adierazten diren tramite eta prozeduretan, izapidetza elektronikoa izatera derrigortzeko ahalmena xedatzen du, zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat izango litzateke eta beti ere, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela.



7.- Ez dira erregistroan aurkeztutzat joko beren araubide bereziaren arabera beste aurkezpen-moduren bat behar duten dokumentuak eta informazioa.

8.- Atzera bota ahal izango dira honako ezaugarriak dituztenak:

a) Sistemaren segurtasunaren osotasunari eragin diezaioketen gailu edo kode maltzurak dauzkatenak.

b) Dokumentu normalizatueta, nahitaezkozat jotzen diren eremuak betetzen ez dituztenak, beharrezko kodeak betetzen ez dituztenak, izapidetzeko eragozpen teknikoak izan ditzaketenak edo nahitaezkoa zen ezaugarriren bat betetzen ez dutenak.

Baldintzak bete ez arren, erregistro elektronikoak ez baditu Automatikoki atzera botatzen, eskumena duen organoak okerrak zuzentzeko eskaria egin eta epea eman dezake, zuzendu ezean aurkeztutakoak ez duela baliorik edo eraginkortasunik izango, ohartarazita.

4. Artikulua: Erregistro Elektroniko Orokorren epeen zenbaketa.

1. Bermeoko Udalak bere Egoitza Elektronikoan argitaratuko du egutegi ofiziala eta hori izango da erregistro elektronikoan epeak zenbatzeko baliozko egutegi bakarra. Gune berean, erregistro arloko aholkularitza bulegoak duen egutegi eta ordutegia publikaturik agertuko da, interesdunek bitarteko elektronikoak erabiltzerakoan aholkularitza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

2.- Bermeoko Udalak, epeen zenbaketarako, irispide-egoitza elektronikoaren data eta ordu ofiziala izango du; behar diren segurtasun-neurriak izango ditu haren osotasuna bermatzeko, eta modu irisgarrian eta ikusteko moduan agertuko da.

3.- Bermeoko Udalaren Erregistro elektronikoak erregela hauen arabera funtzionatuko du:

a) Dokumentuak urteko egun guztietan aurkeztu ahal izango dira, eguneko hogeita lau orduetan.

b) Egundunetan jarritako epeen zenbaketarako, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, egundunetan aurkeztutakoa hurrengo egunduneko lehen orduan aurkeztutzat joko da, non eta arauen batek ez duen espresuki onartzen egundunetan aurkeztutakoa jasotzea. Egundunetan aurkeztu ziren ordu-hurrenkera berean aurkeztutzat joko dira dokumentuak. Egundunetan aurkeztutako dokumentuak, hurrenkera berean, hurrengo egundunetan aurkeztutakoak baino lehenagokotzat joko dira.



c) Udaleko izapideetan bete beharreko epeak zenbatzen hasteko, udalaren edo bere erakunde publikoen erregistro elektronikoan aurkeztutako data eta ordua hartuko dira kontuan. Dokumentua aurkeztu duenari epeen zenbaketa zein data eta ordutan hasten den jakinaraziko zaio.

4.- Gorabehera teknikoren batek eragotzi badu dagokion sistemak edo aplikazioak ohi bezala funtzionatzea, arazoa konpontzen den bitartean, amaitu ez diren epeak luzatzea erabaki ahal izango du Udalak. Egoitza elektronikoan argitara emango du, bai gertatutako gorabehera teknikoaren berri, baita bete gabeko epea zehazki zenbat luzatzen den.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost eguneko epean jarriko da indarrean.

Bermeon 2018ko apirilak 26

